

# Bidaia

El viaje / The journey / Le voyage / Die reise



# Bidaia

El viaje / The journey / Le voyage / Die reise

BIDAIA izeneko lana antzerki, dantza, musika eta irudiz osatutako kale ikuskizuna da. Immigrazioari buruzko europar politiken hipokresiarri eta giza eskubideen gaitik jartzen diren irizpide ekonomikoei kritika egiten zaie.

Errealitate horren inguruan hausnartzeko espazio publikoa hartu eta erabili da, baina harago doa ikuskizuna.

**Estreinaldia: FIRATÀRREGA -  
Teatre al Carrer.**



## JATORRIA

Mauerspringers izena jarri zitzaien, askatasun gosez, Berlingo harresiaren beste aldera jauzi egiten zutenei.

**MAUERSPRINGER-Jumping Walls** gai honi heltzeko landutako proiektuaren izena ere bada, Europar Batasunaren zeina Europa Creativa programak babesten duena. Europar Batasuneko beste bost konpainiarekin batera egin dugu.

Proiektua harresiaren ideien inguruan sortu zen. Izan ere, gizarte, kultura eta politika banaketarako elementutzat hartu izan da.

## KONPAINIA

30 urteko ibilbide profesionalaren ostean, HORTZMUGA TEATROA konpainiak tripetatik sortzen jarraitzen du, tesuinguru soziala aztertu eta kritikatzeko. Ikus-entzuleen kontzientziak esnarazi nahi dira, jendea hunkitu, eta hausnarketa egitera gonbidatu. Bizipen eraldatzailea eskaini, finean.

2009an Euskarazko Antzerki Egile onenaren **MAX** saria jaso zuten; 2014an Leioako **Umore Azokako** saria Ibilbide Artistiko osoagatik; eta 2004an **Umore Azokako** Ikuskizun Onenaren saria.



## **BIDAIA (bidaia bera).**

BIDAIA jai bat da, eguneko musika saioa. DJ berezi eta bitxi bat dago, bi laguntzaile eta argazkilari batekin, heldu berri direnei ongi-etorria ematen. EUROLAND dute zain, BERLINGO harresia erori zen egunaren 30. Urteurrenaren harira egiten den ekitaldi handia.

Berlingo harresia erori zen egunaren 30. urteurrena eta Europan sortu den errefuxiatuen “krisia” deitu zaiona abiapuntu hartuta, antzerki, dantza, musika eta irudiz osatutako kale ikuskizun honek immigrazioari buruzko europar politiken hipokresiarri eta giza eskubideen gainetik jartzen diren irizpide ekonomikoei kritika egiten die.

Etxeko sofaren eta sare sozialen erosotasunetik praktikatzen den gezurrezko aktibismo indibidualaren eta gure gizartearen patologia egozentrikoen sasoian kokatuta, BIDAIA lana muga eta harresiei buruzko hausnarketa bat da.

*Sartu, sartu eta ikusi.  
Jaun-andreok,  
Haurrok,  
Zahar eta gazteok,  
Etorri eta gozatu!  
Ongi etorri lehen mundura!  
Zuen bizitzak balio duen prezio xume horren truke,  
errealitate berri bat erakutsiko dizuegu.  
Ilusioz beteriko mundua.  
Ikusi nahi duten begi eta entzun egin nahi duten  
belarrientzako mundua.  
Mesedez, garbitu ondo belarriak eta kendu  
begietako zapia, sartu aurretik.  
Etorri eta ikusi!  
Irtzen zuen burbuilatik egun batez, eta gozatu.  
Adin guztietarako musika eta dibertsioa.  
Ilusiorik gabeko ilusionistak, zuen ametsak frustrazio  
bihurtzeko gai.  
Horrelakoak gara Europan!  
Etorri eta ikusi!  
Etorri eta ikusi!  
Bizitza zoragarria da!*

► **TEASER Bidaia**



“Bidaia” ekitea ez da erraz hartzen den erabakia. Asmo hori abian jartzen duen pertsona bakoitzak bere arrazoiak ditu. Eta pertsona bakoitza gizakia da.

## **Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala:**

1. Pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltze-ko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizi-lekua aukeratzekoa.
2. Pertsona orok du edozein herrialdetatik alde egiteko eskubidea, baita norberetik ere, eta norbere herrialdera itzultzekoa.

## BIDAIA, EUROPAKO BIRA

Konpainia Europa mailako proiektu batean murgildu da BIDAIA lana sortzeko. Horri esker, lanaren esanahiari lotutako sorkuntza-prozesu bat burutu ahal izan dugu. Izan ere, ikuskizuna hainbat lekutan antzeztu da, azken egokitapena egin aurretik. Bilbon antzeztu genuen lehen aldiz, Antzerki eta Kaleko Arteen Kalealdia Nazioarteko Jaialdiaren baitan, hiri eremuan. Ondoren, Frantziako landa-eremu batean egin genuen aproba, Compagnie du Hasard konpainiaren eta Théâtre sans frontières au Grand Orme jaialdiaren laguntzarekin. Alemanian aukera izan genuen migratzaile eta errefuxiatuak ibiltzen ziren plaza batean antzezteko, Theaterlabor konpainiaren babesarekin, eta Mauerspringer Strassentheater Festival jaialdiaren programazioaren baitan. Esperientzia berezia eta aberasgarria izan zen. Azkenik, Italiak beso-zabalik hartu gintuen Faenzako European Street Theatre Festival izeneko jaialdian, Teatro due Mondi konpainiaren babesarekin.

Argi genuen BIDAIA lanak bidaiatu egin behar zuela, estreinatu aurretik. Pertsonak ez dira migratzen duten bakarrak; kaleko antzerki-lanek ere hala egiten dute. Izan ere, kale, plaza edota zelaietan zehar ibiltzeak ezagutzea, haztea eta helmuga bat bilatzea esan nahi du. Migratzailearen metaforarekin jolastu eta esperimentatu ahal izan genuen, eta oso ondo ikasi genuen norberak ez duela ibilbidea aukeratzen; ibilbideak berak aukeratzen du. Hori bai, desberdintasuna da, oraingoan, konpainiak alde aurretik zekiela nora zihoan. Guretzat, azken helmuga gertukoena FiraTàrrega 2019 izan zen. Bertan estreinatu genuen ikuskizuna modu ofizialean.





## **BIDAIA, FORMATUA**

Bidaia egunez egiten da; gauekotasunik ez, baina azpikeria ugari. Ikusleek elkarri begiratzen diote eta elkar ikusten dute, guri begiratzen digute eta, noski, guk ikusi egiten ditugu. Azken finen, inor ezin da ezkutatu.

Antzezlan ororen aspektu garrantzitsuenetakoak, programazioari dagokionez, honakoak dira: espazioa eta ikusleekiko harremana. Batetik, BIDAIAK ikuskizun eremua berriro definitzen du: kalea. Protagonismo osoa ematen zaio espazioari, pieza hau ez baita beste inon egiten. Bestalde, egoera pasibotik aktibora pasatzen den ikusle goa hartu behar da kontuan. "Laugarren horma" desagertzen da eta artistak eta ikusleak plano berean kokatzen dira. BIDAIA lanaren bidez interakzioa lortu nahi dugu, entzuleen parte-hartzea. Normalean ikuskizunetan ikus-entzuleek izan ohi duten egoera pasiboa hautsi nahi dugu, eta errespetu osoz, beren espazioa hartu, gurea, denona baita.

## BIDAIA, PERTSONAIK


Proposamena pertsonaia nagusien inguruan antolatu da. Honakoak dira: Abha migratzailea, eremu arrotz batean da- goen atzerritarra, eta Europa izena hartzen duen telebistako figura moduko bat, anfitrioi. Azken hori da zeremonia-mai- sua, showa zuzentzen duena eta ikusleak “etxean bezala” sentiarazteko ardura duena.

Europa pertsonaia gure gizartearen isla da: zaharra, neka- tua, eta ezagutzen ez duen orori atea ixten diona. Pertso- naiak gure puntu ilunenak eta alderdi positiboenak ere or- dezkatzen ditu. Bi aurpegiko manipulatzailea da; bere erara antolatu, banatu eta distorsionatzen du.

Bi laguntzaile ditu: zeremonia-maisuak planteatzen dituen jolas eta erronka guztiak ikusarazi eta betearazteko ardura dute, eta hori egiteko hainbat modu izango dituzte: koreo- grafia bat egitea, eszena manipulatzeara, edota beste pert- sonaia batzuen azalean jartzea. Guztiak daukate kabaret kutsuko estetika, hemeretzigarren mendekoa.

Abha pertsonaiak herrialde ezezagun batera itxaropen bila alde egindako migratzaile edota errefuxiatu guztiak ordezkatzeko ditu. Bera da BIDAIA sortzeko abiapuntua, eta piezaren ardatza.

“Krisi egoeretan, emakumeak izaten dira erreazionat- zen lehenak; hala ere, migrazioaren arazoaren barruan bigarren plano batean geratzen dira. Bidean zehar zein kanpalekuetan, jatorriko herrialdean zein helmugakoan, ezinbesteko egitekoa betetzen dute komunitateen zainke- tan, babesean eta berregituraketan. Hala ere, emakume migratzaile eta errefuxiatuen lehentasunak eta ahotsak ez dira kontuan hartzen politikan, ezta aipatzen ere”.





## BIDAIA, ARGAZKILARIA

Argazki-kazetaritza gatazkekin zuzenean lotutako lanbide bihurtu da. Gaur egun munduan gertatzen dena ulertzeko funtsezko pieza izan da, eta jarraitzen du izaten. Argazkiek gure kontzientzia esnarazi dute eta errealtate gordinak ikusarazi dituzte. Askotan, gizarte politiko zein zibilaren aldarrikapenak pizteko eragile izan dira.

BIDAIA lanak ere kontuan hartu du baliabide horren estatusa eta lana, gure gizartearen izugarrikeriak ikusarazi eta salatzeke tresna paregabea baita.

Argazkilaria eta gailua protagonista ikusezinak dira, baina ikusi egiten dira, aldi berean, eta esanahi oso zehatza daukate. Post-egiaren sasoiaren gaude; irudien manipulazioak gero eta gehiago zailtzen du ikusten duguna errealtatearen ala ez erabakitzeke lana. Gure argazkilaria aliatua den David Hornbacken lana begirada zuzenak hartzen ez dituen xehetasun txiki horiek guztiak jasotzea da. Leku batetik bestera eta funtzio batetik bestera, ezustean, aldatzen diren keinu, begirada eta erreakzioak LED pantailan agertzen dira, ikuskizunaren amaieran.



## BIDAIA, DJ-A

Bestalde, ikuskizunaren gizartean, DJek jartzen dute gure bizitzen soinu-banda; haiek dira rock izar berriak. Edukirik gabeko gizarte batek musika artifiziala kontsumitzen du.

BIDAIA lanak DJaren figuraren beste irakurketa bat egitea proposatzen du. Elektronika garaikidea abiapuntu hartu eta masa mugimenduekin lotuta, soinu-diskurtso bat eraikiko du, gure tinpanoak eta kontzientziak astintzeko.

BIDAIA musika-saio bat da, hedonismo eta gozamenerako, historia ulertu eta geure bidaia propioa egiteko.

Musika beste pertsonaia bat da, hari eroale moduko bat. Bertaratzen diren pertsonen egoera animikoa eta emozioak aztoratu eta bidaian murgilarazteko pentsatutako musika da. Musikak eta hori eszenan erabiltzeak babesik gabe uzten du publikoa. Hasiera batean, eman dezake izaera ludikoa eta jai kutsukoa gailentzen dela, baina istorioak aurrera egin ahala, errealitatea gordintzen joango da.



## BIDAIA, DRAMATURGIA

BIDAIA antzerki eta parte-hartze esperientziaren bidez, artistaren eta ikuslearen artean egon daitekeen horma hautsi nahi dugu. Dramaturgia diseinatu eta idazteko bi lan-ildo nagusi hartu behar dira oinarri. Lehen, hemen eta orain garatzen da, kalean dago, bertakoekin, Berlingo harresia erori zen egunaren 30. urteurrenarekin, Europaren pertsonaiarekin eta bertaratutakoekin lotuta. Bigarrena iraganetik orainera dabil saltoka, eta Abharenagan gerturatuko gaitu.

*“Zer izango litzateke guretzako gure familia, lagunak eta beste guztia atzean utzi behar izatea?”*

Abharen pertsonaia errespetuaren eta errealismoaren ikuspegitik gorpuzteko, erreferentzia bibliografikoen eta kontakizun errearen bidez dokumentatzeaz gain, emakume migratzaile eta errefuxiatuekin elkartu gara. Prozesu hori lñigo Iraultzaren kolaborazioarekin egin dugu. Diziplina anitzeko artista horrek esperientzia handia dauka migratzaile, errefuxiatu eta babesgabetasun egoeran dauden gazteen parte-hartze aktiborako proiektuak sortzen. Topaketa horien bidez, hainbat gauza jakin ditugu migrazio ibilbideen, alde egiteko arrazoen, bidean aurkitzen diren oztopoen eta bidaiak dakartzan ondorioen inguruan. Emakume migratzaile baten azalean jartzeko aukera izan dugu, ahaztu gabe bidaia horietan emakume eta neskatilek aurre egin behar dieten sexu-indarkeria.

Migratzaile orok, “bidaiari” ekitean, hiru etapa fisiko eta emozional bizi izaten ditu. Horiek hartu ditugu erreferentzia moduan idazketa dramaturgikoa egiteko, eta bi lan-ildoak espazio eta denboran elkarrekin garatzeko harilkatu ditugu.

### 1.ETAPA

ABIATZEA, amestutako bidaia.

### 2.ETAPA

BIDAIA, zortearen mende dauden ibilbideak.

### 3.ETAPA

HARRERA, errealitate berria.



*Abha beren historiaren berri eman ezin duten emakume migratzaile eta errefuxiatu guztiak dira. Zoritarrez, baina logikoa den moduan, Abhak ez ditu bidaia asko biziko, ezta egoera asko antzetzuko ere, baina bere arima errespetu osoz eraiki da migrazioaren negozioak ikusezin bihurtutako milaka emakumeren kontakizun zatiekin. Beren barrua biluztu eta historiak kontatzea erabaki duten emakumeei egindako omenaldia da.*

## BIDAIA lanari buruz esandakoa:

*“Kritika sozial handiko kale ikuskizuna da, gaur egun puri-purian dauden gaiak azaleratuz: migrazioa, errefuxiatuak eta feminismoa. Hori guztia, gainera, teknologia berriekin konbinatuta. Eszenaratze txukuna, eta ikuskizun beharrezkoa”.*

Pedro Ormazabal, Bilboko Antzerki eta Kaleko Arteen KALEALDIA jaialdiaren Zuzendari Artistikoa.

*“Teknologiaren eta ikus-entzunezko baliabideen erabilera interesgarria egiten du, publikoaren inplikazioa eta parte-hartzea eraginez. Pantaila parte-hartzearen erreferentzia puntu bihurtu da -eta gure portaeraren isla-, baita ikuskizunean gertatzen den guztiarena ere. Ekintza guztiak mediatizatzen ditu eta horien bidez berrelikatzen da, mass media baliabideek egiten duten moduan.”*

Maria Capell Pera. Fira Tarrega Programazio Teknikaria

*“BIDAIA lanak lekualdatu egin ninduen, sarkasmoaren eta enpatiaren arteko mugan aurrera eta atzera. Joko bizi eta erreal bat izan zen, errefuxiatu gazte baten errealitate gordinaren eta joko dibertigarri baten arteko zerbait, Europar Batasuna ordezkatzeko duen telebistako aurkezle batek aurkeztua. Hainbat gauza plantearazi zizkidan: Benetakoak al dira Europar Batasunaren mugak, edo gure buruan baino ez daude? Gure bizitza ez al da atsegina eta bizigarria? Albisteetako irudiak hor al daude benetan, ala emozio pixka bat emateko baino ez dira?”*

*Ikuskizun konprometitua, oso erreala eta dibertigarria aldi berean.”*

Goro Osojnik. Ana Desetnica Nazioarteko Jaialdia.

*“Bidaia lanaren inguruan esango nuke Europako kontraesan sozialen isla bizia dela. “Dena” daukate uste duten horien axolagabetasunaren eta jai-giroaren erdian, bat-batean, bazterkeriaren islak eragiten duen paralisia sentitzen duzu; izan ere, pertsona batzuentzat dagoeneko ez dago ezer; fatxada handia birgaituta ikusten dute, baina sartu nahi duten leku horretan zein miseria ezkutu dauden ez dakite.”*

Tomas Ibañez. Teatro Visitants konpainiaren zuzendaria.

*“Ikuskizuna testuinguru desberdinetan ikusi dut: hiri handi baten erdigunean (Bilbo), Frantziako landa-eremu batean (Feings), eta Italiako herri bateko plazan (Faenza).*

*Honek argi utzi du obrak gaitasuna duela publiko desberdinekin konektatzeko. Aktoreen ekintzak eta ikusleen erreakzioak filmatuta, urrutiko lekuen irudiekin, distantziak laburtu egiten dira, eta itxuraz gureak ez diren istorioak bat-batean kondentatu egiten dira.*

*Mundua estutu egiten da, istorioak bata bestearen gainean geratzen dira, historia unean-unean bizitzen ari garen opari tragiko bihurtzen da: Honen bidez, jendeak pentsatzen du gauzak aldatzeko zerbait egin dezakeela eta Europaren gaineko utopia bat egia bihur dezakegula”.*

Alberto Grilli, Teatro due Mondì konpainiaren zuzendaria.

*Bidaia benetako kale antzerkia da. Espero ez duzun lekuan sortzen da, konturatu orduko. DJ ekipamendu bat aurkitzen dugu plaza baten erdian, ez dakizu zertarako dagoen hor. Bat batean, ikuskizun horrekin bat egin behar duzula sentitzen duzu, nahiz eta zerikusirik ez izan. Eta bat egiten duzu, gutxienez neurri batean. Eta geldiune bat egiten duzu, itsu-itsuan parte hartzera zoazela ohartzean. Dantza kolektiboaren erdian, denak pantaila erraldoian agertzen diren aurpegi irribarretsuei begira daudela, emakume errefuxiatu bat jende artean aurrera egiten ari da, baina inor ez da konturatzen. Batzuek pantailan deskubrituko dute emakumea, kamerari begira dagoelako, baina buelta ere ez dute emango bera ikusteko, hezur-haragizko pertsonari begiratzeko. Kale antzerkiaren bidez gure sasoioko metafora argia plazaratu da.*

Tanja Horstmann. TEATRO DUE MONDI konpainiako antzezlea.



► VIDEO Bidaia











EURO  
LAND





## BIDAIA, LAN-TALDEA

Antzezleak:

**Gabriel Ocina, Patricia Urrutia.**

Dantzariak:

**Aiala Etxegarai, Denis Martínez.**

Eszena zuzendaritza:

**Raúl Cancelo.**

Zuzendaritza koreografikoa:

**Natxo Montero.**

Dramaturgia:

**Javier Liñera.**

Diseinu eta eraikuntza eszenografikoa:

**Óscar de Paz.**

Musika zuzendaritza eta konposizioa:

**Ibon Aguirre.**

Atrezzoak:

**Iñaki Aguinaga**

Jantzien diseinua:

**Iban López.**

Eszenaren argazkiak:

**David Hornback.**

Bideoa:

**Alphax Studio.**

Diseinuak:

**Vudumedia.**

Produkzioa:

**Marta Álvarez.**

Proiektuaren koordinazioa:

**Nerea Lorente.**

Idea eta Sorkuntza:

**Hortzmuga Teatroa.**

BIDAIA lanaren bira 9 pertsonarekin diseinatu da: Antzezle bi (gizona eta emakumeak), dantzari bi (gizona eta emakumea), musikari bat, bi teknikari, argazkilaria bat eta agente edo ordezkari bat. Azken horrek road manager lanak egiten ditu eta ekipo osoari laguntzen dio leku-aldaketetan.

**Hizkuntzak:** BIDAIA lana euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez, alemanez eta italieraz egin daiteke.

**Formatua:** eguneko kale ikuskizuna.

**Hartzaileak:** Helduak.

**Iraupena:** 75 minutu inguru.

### For more information / Bookings:

#### Hortzmuga Teatroa

Álex Antúnez

[info@hortzmuga.com](mailto:info@hortzmuga.com)

+34 697 89 40 74


Nazioartekoa

Compagnie Spektra. Production et diffusion

Jean-Christophe Coutaud

[spektra.diffusion@yahoo.com](mailto:spektra.diffusion@yahoo.com)

+ 33 633 73 02 52





**Hortzmuga Teatroa Oficina**

Bailen 1, 2º piso, Dpto.5  
48003 Bilbao,  
Bizkaia  
Tel. +34 946 711 353  
Tel. +34 697 894 074  
info@hortzmuga.com

**Hortzmuga Teatroa**

Polígono Landetxe nave 27  
48480 Zaratamo,  
Bizkaia